

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko unibertsitate-komunitateari (ikasleak, TKZEL eta irakasle eta ikertzaileak).

Joan diren ostegunean eta ostiralean, irailaren 26 eta 27an, Bizkaiko Zuzenbide Fakultatean izandako gertakariei dagokienez, ikastegiko Dekanotza Taldeak eta Ikasleen Kontseiluak, honako hau jakinarazten dute:

1. Zuzenbide Fakultatea elkarbizitza baketsuaren esparrua da, pertsonen aurkako hertsapenei, mehatxuei eta erasoei, ez eta altzari publikoei eragindako kalteak ez dira bertan sartzen. Ez dago arrazoirik unibertsitate komunitatearen parte den pertsonen aurkako larderia edo jazarpena justifikatzeko.
2. Hain zuzen ere, Zuzenbide Fakultate batean badakigu legezko tresnak daudela edozein motatako kexak, salaketak edo antzekoak bideratzeko, Unibertsitatearen legearen edo printzipio eta balioen aurkakoak izan daitezkeen jokabide eta baieztapenen aurrean. Ez dago aitzakiarik normaltasun akademikoa indarrez galarazteko ekintza horiek legitimatzeko.
3. Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak konpromiso sendoa du gure bizikidetzaz zuzentzen duten eskubide, printzipio eta balioekin, bereziki, berdintasun-eskubideekin eta aniztasunarekiko errespetuarekin. Eskubide horiek unibertsitate-komunitatea osatzen duten pertsona guztien jokabidea inspiratu behar dute, UPV/EHUko Etika Kodearen arabera. Alde horretatik, erabat arbuiatzen ditugu sare sozialetan eta horietatik kanpo eskubide, printzipio eta balio horien aurkakoak diren adierazpenak.

Dekanotza Taldea eta Ikasleen Kontseilua, Donostia-San Sebastianen eta Leioan, 2024ko irailaren 30ean.